[a] aztiker

Jendarte-ikerketa aplikatuak

# EITBko ALBISTEGIEN AZTERKETA

## LURRALDETASUNAREN TRATAERA



Bezeroak:

iparhegoa

baietz! FUNDAZIOA

# AURKIBIDEA

**SARRERA** ---------- **7**

**IKERKETAREN MARKO TEORIKOA** ---------- **9**

**METODOZKO OHARRAK** ---------- **10**

**A. EITBKO ALBISTEGIEN AZTERKETA, 2010. LABURPENA** ---------- **16**

**B. ALBISTEGIEN ANTOLAKETA** ---------- **18**

1 TITULARREN ANTOLAKETA ---------- 18

*1.1 ATALEN AGERPENA TITULARRETAN* ---------- 18

1.1.1 Titularretako agerpenak ---------- 18

1.1.2 Titularretako agerpenak hedabide bakoitzean ---------- 19

1.2 *TITULARRETAKO DENBORAK HEDABIDE BAKOITZEAN* ---------- 20

2 ALBISTEEN ANTOLAKETA ---------- 21

*2.1 ALBISTEEN AGERPENAK ATALKA* ---------- 21

2.1.1 Albisteen agerpenak atalka hedabide bakoitzean ---------- 22

*2.2 ALBISTEEN DENBORAK ATALKA HEDABIDE BAKOITZEAN* ---------- 23

*2.3 ALBISTEEN ORDENA ATALKA* ---------- 24

**C. ALBISTEEN KOKAPENA** ---------- **25**

1 ALBISTEAREN EREMUA ---------- 26

*1.1 TITULARRAK* ---------- 26

1.1.1 Titularretako eremuak ---------- 26

1.1.1.1 Agerpenak ---------- 26

1.1.1.2 Titularretako albisteen eremua hedabide bakoitzean ---------- 27

1.1.2 Titularretako denbora ---------- 28

1.1.2.1 Hedabide bakoitzeko denborak ---------- 28

*1.2 ALBISTEAK* ---------- 29

1.2.1 Albisteen eremuaren agerpenak ---------- 29

1.2.1.1 Albistearen eremuaren agerpenak hedabide bakoitzean ---------- 30

1.2.2 Albistearen eremuaren denbora hedabide bakoitzean ---------- 31

1.2.3 Albisteen eremuaren araberako ordena ---------- 32

2 ALBISTEARENERAGIN ESPARRUA ---------- 33

*2.1 TITULARRAK* ---------- 33

2.1.1 Titularretako albisteen eragin esparrua ---------- 33

2.1.1.1 Agerpen kopuruak ---------- 33

2.1.1.2 Titularretako albisteen eragin esparruaren agerpena hedabide bakoitzean ---------- 34

2.1.2 Titularretako denbora albisteen eragin esparruaren arabera ---------- 35

2.1.2.1 Titularretako albisteen eragin esparruaren denbora hedabide bakoitzean ---------- 35

*2.2 ALBISTEAK* ---------- 36
2.2.1 Albistearen eragin esparrua ---------- 36
2.2.1.1 Albistearen eragin esparruaren agerpena ---------- 36
2.2.1.2 Albistearen eragin esparruaren agerpena hedabide bakoitzean ---------- 37
2.2.1.3 Albistearen eragin esparrua atalka ---------- 38

**D. ESPLIZITAZIO ETA INPLIZITAZIO GEOPOLITIKOAK ---------- 39**
1 ADITZONDO BIDEZKO ESPLIZITAZIOAK ---------- 39
*1.1 ADITZONDO BIDEZKO ESPLIZITAZIOEN EREMU GEOGRAFIKOA* ---------- 39
*1.2 ADITZONDO ESPLIZITAZIOAK ATALKA* ---------- 40
2 GUTASUN ADIERAZPENAK ---------- 41
*2.1 GUTASUN ADIERAZPENEN AGERPENAK* ---------- 41
*2.2 GUTASUN ADIERAZPENAK HEDABIDEKA* ---------- 42
3 INPLIZITAZIOAK ---------- 43
*3.1 INPLIZITAZIOEN EREMU GEOGRAFIKOA* ---------- 43
*3.2 INPLIZITAZIOEN EREMU GEOGRAFIKOA HEDABIDE BAKOITZEAN* ---------- 44
*3.3 INPLIZITAZIOEN EREMU GEOGRAFIKOA ATALKA* ---------- 45
4 INSTITUZIOAK ---------- 46
*4.1 INSTITUZIOEN AGERPENA* ---------- 46
*4.2 INSTITUZIOEN AGERPENA HEDABIDEKA* ---------- 47
*4.3 INSTITUZIOEN AGERPENA ATALKA* ---------- 48
5 IZEN TOPONIMIKOAK ---------- 49
*5.1 IZEN TOPONIMIKOEN HIZKUNTZ ERABILERA* ---------- 49
5.1.1 Datu totalak ---------- 49
5.1.2 Datuak hedabideka ---------- 49
*5.2 IZEN TOPONIMIKOEN HIZKUNTZ ERABILERA ATALKA* ---------- 50
5.2.1 Izen toponimikoen hizkuntz erabilera atalka euskarazko hedabidetan ---------- 50
5.2.2 Izen toponimikoen hizkuntz erabilera atalka gaztelerazko hedabidetan ---------- 50
6 ADIERAZPEN IKONIKOAK ---------- 51
*6.1 ADIERAZPEN IKONIKOEN AGERPENA* ---------- 51
6.1.1 Adierazpen ikonikoen agerpena hedabide bakoitzean ---------- 52
*6.2 KARTELEN HIZKUNTZA* ---------- 52
6.2.1 Kartelen hizkuntza hedabideka ---------- 53
6.2.2 Kartelen hizkuntza atalka ---------- 53
*6.3 BANDEREN AGERPENA* ---------- 54

**E. SUBJEKTUAK ---------- 55**
1 SUBJEKTUEN TIPOLOGIA GEOPOLITIKOA ---------- 56
*1.1 SUBJEKTUEN TIPOLOGIA GEOPOLITIKOAREN ARABERAKO AGERPENAK* ---------- 56
*1.2 SUBJEKTUEN TIPOLOGIA GEOPOLITIKOAREN ARABERAKO AGERPENAK HEDABIDE BAKOITZEAN* ---------- 57
*1.3 LEHENENGO SUBJEKTUEN TIPOLOGIA GEOPOLITIKOA* ---------- 58
*1.4 SUBJEKTUEN DENBORAK* ---------- 59
*1.5 SUBJEKTUEN DENBORAK HEDABIDE BAKOITZEAN* ---------- 60
2 TIPOLOGIA SOZIOPOLITIKOA ---------- 61
*2.1 ALDERDI POLITIKOETAKO ORDEZKARIEN PRESENTZIA* ---------- 61

*2.2 ALDERDI POLITIKOETAKO ORDEZKARIEN PRESENTZIA HEDABIDE BAKOITZEAN* ------- 62

*2.3 ALDERDI POLITIKOETAKO 1.SUBJEKTUAREN ORDEZKARIA* ------------------------------- 63

*2.4 ALDERDI POLITIKOETAKO ORDEZKARIEN DENBORAK* ------------------------------------ 64

*2.5 ALDERDI POLITIKOETAKO ORDEZKARIEN DENBORAK HEDABIDE BAKOITZEAN* --------- 65

3 SUBJEKTUAK AGERTZEKO MODUA ------------------------------------------------------- 66

*3.1 SUBJEKTUEN TIPOLOGIA GEOPOLITIKOAREN ARABERAKO FORMATUA* ------------------ 66

*3.2 SUBJEKTUEN TIPOLOGIA GEOPOLITIKOAREN ARABERAKO FORMATUA HEDABIDEKA* --- 67

3.2.1 SUBJEKTUen tipologia geopolitikoaren araberako formatua hedabideka. ETB1 ----------------------------------------------------------------------------67

3.2.2 SUBJEKTUen tipologia geopolitikoaren araberako formatua hedabideka. ETB2 ----------------------------------------------------------------------------68

3.2.3 SUBJEKTUen tipologia geopolitikoaren araberako formatua hedabideka. Euskadi Irratia ---------------------------------------------------------69

3.2.4 SUBJEKTUen tipologia geopolitikoaren araberako formatua hedabideka. Radio Euskadi ----------------------------------------------------------70

*3.3 ORDEZKARI POLITIKOEN AGERPEN MOTA* ------------------------------------------ 71

*3.4 ORDEZKARI POLITIKOEN AGERPEN MOTA HEDABIDEKA* --------------------------------- 72

3.4.1 Ordezkari politikoen agerpen mota hedabideka. ETB1 -----------------------72

3.4.2 Ordezkari politikoen agerpen mota hedabideka. ETB2 -----------------------73

3.4.3 Ordezkari politikoen agerpen mota hedabideka. Euskadi Irratia -------------74

3.4.4 Ordezkari politikoen agerpen mota hedabideka. Radio Euskadi -------------75

4 SUBJEKTUAK HIZKUNTZA ERABILERA ----------------------------------------------------- 76

*4.1 SUBJEKTUEN JATORRIZKO HIZKUNTZAREN TRATAERA* ---------------------------------- 76

*4.2 SUBJEKTUEN JATORRIZKO HIZKUNTZAREN TRATAERA HEDABIDEKA* ------------------- 77

*4.3 SUBJEKTUEK "BESTE" HIZKUNTZAN MINTZATZERAKOAN AZPITITULUEN ERABILPENA* - 78

*4.4 SUBJEKTUEK "BESTE" HIZKUNTZAN MINTZATZERAKOAN AZPITITULUEN ERABILPENA HEDABIDEKA* ---------------------------------------------------------------------- 78

**F. ONDORIO NAGUSIAK ----------------------------------------------------------79**

**I. ERANSKINA: BEHAKETA FITXATEGIA ---------------------------------------------83**

**II. ERANSKINA: TAULA GURUTZATUAK ETA INFORMAZIO GEHIGARRIA -------- 101**

# EITBko ALBISTEGIEN AZTERKETA 2010

## -EMAITZEN TXOSTENA-

[a]
aztiker
Jendarte-ikerketa aplikatuak

# SARRERA



Txosten honetan 2010eko iraila eta azaroa bitartean burututako EITBko lau hedabideetako albistegien azterketa aurkezten dira: ETB-1, ETB-2, Euskadi Irratia eta Radio Euskadiko datuak alegia.

Ikerketaren helburua zehatza da, EITBko albistegietan erabiltzen den harreman pertsonal eta instituzionaletarako joko-eremu geopolitikoa zein den jakitea.

Txosten honetako lehen atalean, ikerketa hau burutzeko berariaz sorturiko metodologia oharrak dituzu. Bertan azaltzen dugu, urratsez urrats, eraikitako eduki azterketarako fitxa, kronograma, birkodetzeen justifikazioa, e.a.

Jarraian, albistegien **antolaketa**ren inguruko azterketaren emaitzak dituzu, ordena, agerpen kopurua eta denborei dagokionean, gai tematikoen arabera albisteak nola antolatzen diren azalduz.

Bestetik, **albisteen lokalizazio** eremuaren inguruko emaitzak. Ikergaiaren aspektu nagusietako bat izanik, garrantzi handiko afera izan dena.

Atal honetan bi ikuspegien arabera egin dugu ikerketa:

1. Albisteen eremua. Beste modu batean esanda, EITBko hedabideetan ikusten eta entzuten diren albisteak non gertatu diren. Modu honetan EITBk nongo albisteak eskaintzen diren galderari erantzun nahi izan zaio.

2. Bestalde, albisteek duten eragin esparruaren inguruko informazioa aztertu dugu, berriak gertatzen diren tokitik haratago, albiste horrek eragina duen esparru bat baitago.

Laugarren atala, informazioaren kokapen geopolitikoa eta sozialarekin lotura duten adierazpen zehatzak aztertuak izan dira, izaera, pertenentzia eta sentimendu bat sortzeko orduan, errealitate nazional psiko-sozialarekin harremana duten hitzezko zein irudi bidezko adierazpenek duten garrantzia abiapuntutzat hartuz. Beraz, atal honetan azterketa horrek emandako datuak aurkitu daitezke.

Esplizitazio eta inplizitazio geopolitikoen izenburupean, modu bateko zein besteko adierazpenen gaineko azterketaren emaitzak eskaintzen dira.

Azkenik, **pertsonai** edo subjektuen azterketa egiten da; alde batetik, EITBk tartea eskaintzen dien pertsonen jatorri geopolitikoaren behaketa eta, bestetik, alderdi politikoetako ordezkarien presentzia eta denbora kopurua zenbatekoa den neurtuz.

Ez dugu eskertu gabe utzi nahi lan honen osaketarako eta zuzentasunerako beraien denbora, esperientzia, ezagutza eta gogoa debalde eskaini digutenak. Haien laguntzari esker lan honen kalitatea bermatua dago. Mila esker zuei.

# IKERKETAREN MARKO TEORIKOA



Masa komunikabideek ingurune soziopolitikoaren gaineko pertzepzioa sortzeko bitartekoak dira egungo jendartean. Beraien bidez, antolaketa soziopolitiko eta administratibo jakinak marraztu eta konfiguratzen dira.

Lan honetarako izan diren komunikabide publikoak ere **erreprodukzio sozialaren** papera betetzeaz haratago, **agente sortzaileak** bilakatzen dira. Albistegi bat osatzen duten elementu guztien atzean hautaketa prozesu bat dago, batzuetan inkontzientea, kontzientea beste askotan. Hautatuak diren gertakari, terminologi, esparru, irudi eta pertsonaiak **pentsaera kolektiboaren definiziorako** bitartekoak dira.

Errealitatea sozialki eraikitzen den fenomenoa izanik, komunikabideek inguruneari buruzko errepresentazioa nola egiten duten jorratu dugu azterketa honen bidez, EITBren barruko lau hedabideen eskaintza informatiboa jorratuz.

Hedabideek propio kontsideratzen duten esparruaren definizioan eta mugarritzean lan handia egiten dute. "*Gure*" lur-esparrua zein den, "*hemengoak/kanpokoak*" zeintzuk eta nolakoak diren, zerk bereizten dituen "*kanpokoekiko*", nongo gauzak zaizkion interesgarri eta, hitz gutxitan esanda, maila guztietako harremanetarako joko-eremua definitzeko lanetan aportazio indartsua egiten dute.

Lurraldea, informazio unitate orotan eta albistegiaren egituraketan bertan, uneoro presente dagoen elementua da, osagai desberdinen bitartez plazaratzen dena publikoaren begi eta belarrietara. Lurraldea ez da kontzepzio abstraktua, eremu geopolitikoaren definizioaren bitartez harremanetarako markoa eta bertan legitimatutzat hartzen diren agente eta harreman mota zehatzak kokatzen dira, eta kontrako norabidean, mugarriak ezarri.

Beraz, ikerketa honen abiapuntuan eta xedean dago jakitea zein den EITBk bere albistegien bidez egiten duen ekarria.

# METODOZKO OHARRAK

**XEHETASUN TEKNIKOAK (LABURPENA):**

**Unibertsoa**: EITBko lau hedabideen albistegiak

**Lagina:**

**ETB-1, ETB-2, Euskadi Irratia eta Radio Euskadiko 28 albistegi saio. Hedabide bakoitzeko eta astegun bakoitzeko bana.**

- **Guztira, behatutako albiste kopurua 1.065 izan da.**

**Landa-lana:** 2010eko Irailaren 18tik azaroaren 8 bitartean.

## ERABILITAKO TEKNIKA

Ikerketaren helburu nagusia EITBko albistegien edukiak eta zehazki harreman politiko eta sozialetarako eremu geopolitikoa zein den jakitea izanik, edukien azterketa izan da erabilitako prozedura. Zehazki, grabatutako albistegietako hitzezko zein irudi bidezko edukien erauzketarako Fitxaren bitartez burutu dugu azterketa, modu honetan EITBko eduki eta diskurtsoen azterketa kuantitatiboa burutuz.

Laginaren unitatea albistegia izan da. Albistegia, aurkezle propioekin telebista zein irratiko gainontzeko programaziotik berezituta eta giza baliabide zein baliabide tekniko propioekin garatutako informaziorako tartea da. Honetarako telebistako laginean Kiroleko atala kontutan hartu da, ez, ordea, Eguraldia.
Irratiaren kasuan, Kultura, Trafikoa eta Kiroleko Atalak aintzat hartu dira, eta Euskadi Irratiren kasuan, Gertukoak saila ere.

Azterketa unitate gisa albistea erabili dugu. Behaketarako oinarrizko elementua izan da, albisteak izan direlako edukien araberako azterketa egiteko erabilitako informazio unitate. Informazio unitate hau identifikatzea ezinbestekoa da modu operatibo batean albistegien hitzezko zein irudi bidezko azterketa gauzatzeko.

Albistea, beraz, albistegietako informazio orokorra eskaintzen digun elementu nagusiena da. Halere, esplizitazio geopolitikodun informazioa jasotzeko albiste bakoitzaren baitako hitzak aztertu ditugu, honek eskaintzen digulako lurralde eta nortasunari buruzko informazio zehatza kasu bakoitzean. Hitzezko informazio hau kazetarien ahotik eta teleprinterretan agerturiko hitzezko informazioaren ustiaketaren bitartez bildu ahal izan da.

Albisteak tematikoki zedarritu ditugu, egitura aldetik ere gutxienik aurkezle baten informazio edo sarrera bat eta gertakari edo ekintza bat exijitzen duelarik.

Emaitzak ere unitate honen azterketaren arabera aurkezten ditugu.

Kodifikazioaren bitartez albiste bakoitzaren azterketak emandako datu gordinak sailkatu ditugu.

Sailkapen hauek, era berean, eraldatu eta berriro sailkatuak izan dira kategoria berrietan birkodetze sistemaren bitartez.

## LAGINKETA

Unibertsoa EITB kate publikoko eguneroko albistegiak da, ETB-1, ETB-2, Euskadi Irratia eta Radio Euskadikoak, alegia.

Lagina unibertso osoaren argazki ordezkagarriena izan dadin, hedabide bakoitzean asteko egun guztiak bilduko dituen kronograma osatu dugu.
Astegun guztietako hedabide guztietako albistegi bana aukeratzeko kronograma burutu dugu, beraz.

Hedabide bakoitzeko albisteen artean gutxieneko 7 egunetako tartea utzi dugu, bata eta bestearen artean tematikoki errepikakorra suerta daitekeen informazioa ekiditearren.

Ikerketaren azterketarako oinarrizko unitate izan diren 1066 albiste behatu ditugu osotara.

Hedabideka modu honetan banatu dira albiste hauek:

- ETB1- 209 albiste.
- ETB2- 270 albiste.
- Euskadi Irratia- 329 albiste.
- Radio Euskadi- 258 albiste.

Telebistaren kasuan, gaueko albistegiak aztertuak izan dira, ETB1en gaueko 20.00tan hasita, eta ETB2ren kasuan, gaueko 21.00tan hasita.

Irratiari dagokionez eguerdiko albistegiak landu dira, Euskadi Irratiaren kasuan, 13.00etatik 14.30 bitartean emititzen dena, eta Radio Euskadin 13.00etatik 15.00 bitartekoa.

Osotara, 95644 segundotako tartea jorratu izan dira, denborak honela banatzen direlarik lau hedabideen artean:

- ETB1- 13.969 segundu/232,8 minutu/3,9 ordu.
- ETB2- 18.975 segundu/316,3 minutu/5,3 ordu.
- Euskadi Irratia- 29.344 segundu/489,1 minutu/8,2 ordu.
- Radio Euskadi- 33.356 segundu/489,1 minutu/9,3 ordu.

## AZTERKETA FITXA

Aztertu nahi genituen gaien inguruko aldagaiekin osatu da Azterketa Fitxa.

Fitxa honek Sarrera aipaturiko lau atal nagusi biltzen ditu:

- *Egitura*. Albistegiaren antolaketaren behaketarako atala. Albistegiaren baitako kokapena, informazio tematikoa eta iraupena eskaintzen dizkigu.

- *Lokalizazioa*. Albisteen esparru geografikoen kokapenaren informazioa eskaintzen diguten aldagaiak biltzen ditu.
- *Esplizitazio eta inplizitazio geopolitikoak*. Hitzezko zein irudi bidezko informazioa eskaintzen dizkiguten aldagaiek osatzen dute.

  Hitzezko informazioa kazetarien adierazpenen bidez zein teleprinterretan idazten dena, hitzezkoa baita bertan ageri den informazioa.
- *SUBJEKTUak*. Albisteetako protagonistak diren pertsonen ezaugarriak identifikatzeko atala dugu hau. Pertsonen ezaugarrien inguruko informazioa, eta albistean agertzen diren modu eta denboratan ematen den informazio lortu da.

Honetaz gain ere, albiste eta albistegi bakoitza erregistratzeko Identifikaziorako atala sortu dugu ere. Modu honetan, albiste bakoitzak biltzen duen informazio guztia albiste kodigo bati egokituko zaio, Albiste egun eta hedabide baten baitako informazio gisa.

## LANDA LANA

Albistegiak Irailaren 18tik Azaroaren 8a bitartean emititutakoak grabatu dira, honako kronograma hau jarraituz:

[redacted]

## BEHAKETA FITXA[1], AURREKODIFIKAZIOAK ETA BERKODIFIKAZIOAK

Sakonean jorratu nahi izan diren aldagaiekin osatu dugu Azterketa Fitxa.

Fitxa honek sarreran aipaturiko lau atal nagusi biltzen ditu:

- *Egitura*. Albistegiaren antolaketaren azterketarako atala. Albistegiaren baitako kokapena, informazio tematikoa eta iraupena eskaintzen dizkigu.
- *Lokalizazioa*. Albisteen esparru geografikoen kokapenaren informazioa eskaintzen diguten aldagaiak biltzen ditu.
- *Esplizitazio eta inplizitazio geopolitikoak*. Hitzezko zein irudi bidezko informazioa eskaintzen dizkiguten aldagaiek osatzen dute.

  Hitzezko informazioaz ari garenean bi informazio mota hartzen dira kontuan: batetik, kazetarien adierazpenak, ahotsaz, hitz eginez entzun digunak. Eta teleprinterretan idatziz agertu direnak, hitzezkoa baita bertan ageri den informazioa, bestetik.
- *Subjektuak*. Albisteetako protagonistak diren pertsonen ezaugarriak identifikatzeko atala dugu hau. Pertsonen ezaugarrien inguruko informazioa, eta albistean agertzen diren modu eta denboratan ematen den informazio lortu dugu.

---

[1] Behaketan erabilitako kontzeptu zein kategoria guztiak zehazki ezagutzeko eranskinetan gehitzen dugu behaketa fitxa osorik.

Honetaz gain ere, albiste eta albistegi bakoitza erregistratzeko Identifikaziorako atala sortu dugu. Modu honetan, albiste bakoitzak biltzen duen informazio guztia albiste kodigo bati egokituko zaio, albiste egun eta hedabide baten baitako informazio gisa.

Aldagai bakoitzerako kategoria ezberdinen aurrekodifikazioa egin da. Modu honetan albiste bakoitzaren behaketan agertzen ziren elementuak datu base batean jaso da.

Behin datu basea sortuta eta ustiatuta, zenbait kategoria birkodetuak izan dira, irakurlearentzat aurkezpena ulergarriagoa eta irakurterrazagoa izan dadin eta emaitzak esanguratsuak izan daitezen.

Birkodetze garrantzitsuenak azaltzen ditugu jarraian:

*Albistearen ordena edo garrantzia*: Albistegietan azalpen ordenaren arabera multzokatu ditugu albiste ezberdinak. Horrela, lehen bost albisteek *lehentasunezko albisteak* kategorian birkodetu ditugu. Seigarren albistetik hamargarrenera *Bigarren mailako albisteen* kategorian. Beste albiste guztiak, azkena ez ezik, *Bloke nagusia* kategoriara eta azkenik *Azken albistea* kategorian jaso ditugu albistegiak itxi dituzten albisteak.

Taula eta grafiko batzuetan eremu geografiko bezala agertzen den *Nazioartea* hiru kategoria ezberdinek osatzen dute: Europa, EEBB eta mundua. Hau horrela egin dugu, hirurak banaturik agertuta % 5,0ren azpitik agertzen zirenean edota esangura txikia zutenean.

Bestetik albisteetan ager zitezkeen atal geografiko ezberdinak aztertu ditugu. Albistearen eremua, eragin eremua, eta subjektu edo pertsonaien ezaugarri geopolitikoa, datuak jasotzeko orduan modu analitikoagoan edo zehatzagoan burutu badugu ere, aurkezteko orduan hainbat berkodetze egin ditugu. Grafikoki adierazita, horrela egin dugu:

<table>
<tr><th>Aurrekodifikazioa</th><th>Berkodetua</th></tr>
<tr><td>EAE</td><td rowspan="5">EAE</td></tr>
<tr><td>Hiria</td></tr>
<tr><td>Herria</td></tr>
<tr><td>Hiriburua</td></tr>
<tr><td>Herrialdea</td></tr>
<tr><td>NFK</td><td rowspan="4">Nafarroa Garaia</td></tr>
<tr><td>Hiria</td></tr>
<tr><td>Herria</td></tr>
<tr><td>Hiriburua</td></tr>
<tr><td>Iparralde</td><td rowspan="5">Ipar Euskal Herria</td></tr>
<tr><td>Hiria</td></tr>
<tr><td>Herria</td></tr>
<tr><td>Hiriburua</td></tr>
<tr><td>Herrialdea</td></tr>
<tr><td>Hegoalde</td><td>Hego Euskal Herria</td></tr>
<tr><td>Euskal Herria</td><td>Euskal Herria</td></tr>
<tr><td>Estatuko beste herrialde</td><td rowspan="2">Estatu Espainiarra</td></tr>
<tr><td>Espainiar Estatua</td></tr>
<tr><td>Frantziar Estatua</td><td>Estatu Frantziarra</td></tr>
<tr><td>Europar Batasuna</td><td rowspan="2">Europa</td></tr>
<tr><td>Europako bestelako herrialdea</td></tr>
<tr><td>EEBB</td><td>EEBB</td></tr>
<tr><td>Munduko beste herrialde</td><td rowspan="2">Mundua</td></tr>
<tr><td>Mundua</td></tr>
</table>

Antzerakoa egin behar izan dugu aldagai soziopolitikoa birkodetzeko. Kasu honetan birkodetzea honakoa izan da:

<table>
<tr><th>Aurrekodifikazioa</th><th>Berkodetua</th></tr>
<tr><td>Funtzio exekutibodun Espainiar burua</td><td rowspan="11">PSOE</td></tr>
<tr><td>Estatuko botere judiziala</td></tr>
<tr><td>Estatuko botere legegilea</td></tr>
<tr><td>Estatuko ministroa</td></tr>
<tr><td>Administrazio zentraletako erakunde politiko, ekonomiko edota Erkidego Autonomoetako presidenteak</td></tr>
<tr><td>EAEko Gobernuko kideak</td></tr>
<tr><td>EAEko Gobernu burua</td></tr>
<tr><td>EAEko beste organo politiko-administratiboak</td></tr>
<tr><td>PSE</td></tr>
<tr><td>PSOE</td></tr>
<tr><td>PSN</td></tr>
<tr><td>PP</td><td rowspan="3">PP</td></tr>
<tr><td>PP-EAE</td></tr>
<tr><td>PP-NFK</td></tr>
<tr><td>NFKko botere judiziala</td><td rowspan="3">UPN</td></tr>
<tr><td>NFKko botere legegilea</td></tr>
<tr><td>UPN</td></tr>
<tr><td>PNV</td><td rowspan="2">PNV</td></tr>
<tr><td>EAEko administrazio lokalak (herrialde mailakoak)</td></tr>
<tr><td>UPyD</td><td>UPyD</td></tr>
<tr><td>EA</td><td>EA</td></tr>
<tr><td>Ezker Abertzalea</td><td>Ezker Abertzalea</td></tr>
<tr><td>Aralar</td><td>Aralar</td></tr>
<tr><td>NaBai</td><td>NaBai</td></tr>
<tr><td>Izquierda Unida</td><td rowspan="3">IU-EB</td></tr>
<tr><td>EB</td></tr>
<tr><td>IUN</td></tr>
<tr><td>Hamaikabat</td><td>Hamaikabat</td></tr>
<tr><td>Alternatiba</td><td>Alternatiba</td></tr>
</table>

Adierazpen komunitarioei dagokienean multzokatzeak edota birkodetzeak honakoak izan dira:

<table>
<tr><th>Aurrekodifikazioa</th><th>Berkodetua</th></tr>
<tr><td>Herria</td><td rowspan="27">Beste</td></tr>
<tr><td>Pueblo</td></tr>
<tr><td>Euskal Hiritartasuna</td></tr>
<tr><td>Espainiar Hiritartasuna</td></tr>
<tr><td>Euskal Herritartasuna</td></tr>
<tr><td>Espainiar Herritartasuna</td></tr>
<tr><td>Ciudadanía vasca</td></tr>
<tr><td>Ciudadanía española</td></tr>
<tr><td>Eusko</td></tr>
<tr><td>Euskaldun</td></tr>
<tr><td>Pais Vasco</td></tr>
<tr><td>Frantzia</td></tr>
<tr><td>Estatu Espainiarra</td></tr>
<tr><td>Estatu Frantziarra</td></tr>
<tr><td>Hegoalde/Hego Euskal Herria</td></tr>
<tr><td>Iparralde/Ipar Euskal Herria</td></tr>
<tr><td>Nafarroa</td></tr>
<tr><td>Comunidad Foral de Navarra</td></tr>
<tr><td>Nafarroako Foru Komunitatea</td></tr>
<tr><td>Herrialde historikoa</td></tr>
<tr><td>Territorio histórico</td></tr>
<tr><td>Herrialdea</td></tr>
<tr><td>Provincia</td></tr>
<tr><td>Lurraldea</td></tr>
<tr><td>Territorio histórico</td></tr>
<tr><td>Vascongadas</td></tr>
<tr><td>Españ@l/@s</td></tr>
<tr><td>Euskadi</td><td>Euskadi</td></tr>
<tr><td>Euskal Herria</td><td>Euskal Herria</td></tr>
<tr><td>Vasc@</td><td>Vasc@</td></tr>
<tr><td>Euskal</td><td>Euskal</td></tr>
<tr><td>Espainia</td><td>Espainia</td></tr>
<tr><td>Navarra</td><td>Navarra</td></tr>
<tr><td>Comunidada Autonoma Vasca</td><td rowspan="2">Comunidad Autónoma Vasca</td></tr>
<tr><td>Euskal Erkidego Autonomoa</td></tr>
</table>

## ALDAGAI INDEPENDIENTEAK

Albiste bakoitza zein kanal edo hedabidean agertu den erregistratu izan da. Modu honetan EITB taldearen informazioa edukitzeaz gain, bere barruan topatzen ditugun lau hedabide nagusien inguruko informazioa ere gurutzatu ahal izan dugu.

# A. EITBko ALBISTEGIEN AZTERKETA, 2010. LABURPENA

**ALBISTEEN ANTOLAKETA**

- EITBko albistegietan Kirola da gehien lantzen den gaia, notizia kopuru (%29,7) zein hauei eskaintzen zaien denborari dagokionean (%33,1).
- Bigarren mailan Politika (%20,4) aurkitzen da, eta jarraian Jendartea (%19,7) gaia.
- Hedabide bakoitzean egindako azterketa berezituan Kulturari Irratietan telebistan baino tarte handiagoa eskaintzen zaiola ikus daiteke.
- Politikako albisteak dira lehentasunez ageri direnak albistegietan (%60,7) eta Jendarteko albisteek bigarren postuan sailkatzen dira, datu erlatibo altuarekin (%15,7).

**KOKAPENA**

- Titularretan agertzen diren albisteen %50,6a Euskal Autonomia Erkidegoan gertaturikoak dira eta %16,8a Espainiar Estatuan.
- Titular hauetako albisteek duten eragin esparruari dagokionean, ordea, Espainiarra agertzen da albisteen %32,4an eta EAEkoa %37,2an.
- Albisteei dagokienez, datuek joera berdintsua adierazten digute. Albiste gehienak EAEkoak dira (%46,5), baina albiste horien eragin esparrua aztertzerakoan Espainiara jotzeko joera ikusten da kasuen %30,1ean, EAEkoa Espainiako albisteen mesedetan %33,6ra jaisten den bitartean.
- Ordenari dagokionean, lehentasunezko albisteak EAEn jazotzen direnak dira, Espainiakoek %21,4 osatzen duten bitartean.
- Bigarren mailako albisteen kasuan EAEkoak %37,4 dira eta Espainiakoak %20,1a.
- Garrantzia duten azken albisteen %22,2a Espainian gertatutakoak dira eta %33,3a Euskal Autonomia Erkidegoan.
- Laburtuz, nagusiki EAEko albisteak izan arren, hein handi batean Espainiar Estatuan eragina duten albisteak bilatzen direla adierazi daiteke.

**ESPLIZITAZIO ETA INPLIZITAZIO GEOPOLITIKOAK**

- Aditzondoen kasuan %68,0k EAEri egiten dio aipamena eta %17,3ak Hego Euskal Herriari. Kasu honetan, batik bat, Kirolari loturiko albisteetan.
- Lurraldearen inguruko adierazpen terminologiko erabilienak Euskadi (%29,1) eta Espainia (%24,7) dira. Euskal Herria adierazpenek %8,5a suposatzen dute, batik bat Euskadi Irratian entzuten direnak.
- Era inplizituan adierazten diren adierazpideek nagusiki Espainiari aipamen egiten dizkiotenak dira (%50,3). EAEkoak, aldiz, %30,5 dira.
- Albistegietan agertzen diren instituzioen jatorria edo eremua neurtu dugu eta agertzen diren %45,2ak EAEkoak dira. Espainia ordezkatzen duten erakundeak %43,5a dira.
- Izen toponimikoen hizkuntzaren erabilerari erreparatuta, euskarazko hedabideetan adierazpen elebidunak %34,6a dira eta gainontzekoak (%65,4) euskaraz adieraziak dira. Gaztelerazkoetan %21,3 dira euskaraz eta %1,5ak elebidunak.
- Azkenik, ETBn ageri zaizkigun irudien %51,4a Espainiar lurraldea ordezkatzen dutela ikus daiteke. Irudien %37,7a EAEko irudiek osatzen dute.
- Modu laburrean adierazita, EITBk propio egiten duen eremua EAE izanik ere, Espainiarekiko lotura modu subliminalean adierazten da bere albistegietan.

**SUBJEKTUAK**

- EITBn agertzen diren pertsonaien %44,8a EAEkoak dira, agertzen diren maiztasunari dagokionez. Eskaintzen zaien denborari begiratuta, protagonista hauek denboraren %53,3a erabiltzen dute.
- Jatorri espainiarreko pertsonaiek agerpen kopuruen %19,8a osatzen dute, denboran datua arinki jaisten den bitartean.
- Alderdi politikoak ere behatu ditugu, eta modu argian PSOE/PSE da agerpen kopuru zein denboran espazio gehien okupatzen/betetzen duen alderdi politikoa. Maiztasunari dagokionez %47,0 ageri da, eta denboraren %44,6 betetzen du PSOEk.
- Bigarren mailan EAJ-PNV ageri zaigu agerpenen %21,9arekin. PNVk denboraren %35,9a jasotzen du.

# B. ALBISTEGIEN ANTOLAKETA

Atal honetan EITBko albistegietan eskaintzen diren albisteak antolatzeko modua ikusiko dugu.

Gai bakoitzari eskaintzen zaion tartea eta albisteetako titularrak aurkezteko ordena ikusiko dugu alde batetik, eta, albistegi osoen azterketa berdina, bestaldetik.

## 1 TITULARREN ANTOLAKETA

Atal honetan, Titularretan agertzen diren albisteak zein gai tematikori buruzkoak diren adierazten dizkigute datuok.

### 1.1 ATALEN AGERPENA TITULARRETAN

#### 1.1.1 Titularretako agerpenak

| | Maiztasuna | Ehunekoak |
|---|---|---|
| **Politika** | 57 | 16,7 |
| **Ekonomia** | 34 | 10,0 |
| **Nazioartea** | 24 | 7,0 |
| **Kultura** | 46 | 13,5 |
| **Jendartea** | 46 | 13,5 |
| **Kirola** | 113 | 33,1 |
| **Eguraldia** | 11 | 3,2 |
| **Gertukoak** | 3 | 0,9 |
| **Trafikoa** | 7 | 2,1 |
| **Guztira** | **347** | **100,0** |

Titularretara eramaten diren albisteak kasurik gehienetan, %33,1arekin, Kirolaren inguruko gaiak dira. Bigarren maila batean Politikako albisteak ditugu, baina Kiroleko albisteen erdiarekin (%16,7).

Ikus dezakegunez Kultura eta Jendartea dira %13,5 banarekin hirugarren mailan kokatzen direnak.



### 1.1.2 Titularretako agerpenak hedabide bakoitzean

Kasua hedabideka aztertuta ikus daiteke joera berdintsua ageri dela guztietan ere.

Datu esanguratsua da Politikako titularrak bigarren maila batean soilik ETB-2n aurkitzen direla.

| | ETB1 | ETB2 | Euskadi Irratia | Radio Euskadi |
|---|---|---|---|---|
| **Politika** | 15,8 | 23,0 | 14,4 | 16,1 |
| **Ekonomia** | 8,8 | 8,2 | 4,5 | 17,0 |
| **Nazioartea** | 8,8 | 13,1 | 3,6 | 6,3 |
| **Kultura** | 12,3 | 8,2 | 16,2 | 14,3 |
| **Jendartea** | 26,3 | 9,8 | 12,6 | 9,8 |
| **Kirola** | 26,3 | 32,8 | 41,4 | 28,6 |
| **Eguraldia** | 1,8 | 4,9 | 2,7 | 3,6 |
| **Gertukoak** | 0,0 | 0,0 | 2,7 | 0,0 |
| **Trafikoa** | 0,0 | 0,0 | 1,8 | 4,5 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| *Oinarri (kasu kopurua)* | *57* | *61* | *111* | *112* |



## 1.2 TITULARRETAKO DENBORAK HEDABIDE BAKOITZEAN

Oro har hedabide guztietan Kirola eta Politikaren artean banatzen dira titularretako denboren erdia, ETB1eko kasuan izan ezik, Jendarteko gaiak direlarik titularretan denbora gehien eskaintzen zaizkien albiste motak.

| | ETB-1 | ETB-2 | Euskadi Irratia | Radio Euskadi |
|---|---|---|---|---|
| **Politika** | 15,7 | 27,2 | 15,1 | 28,7 |
| **Ekonomia** | 8,7 | 8,6 | 5,4 | 20,0 |
| **Nazioartea** | 9,7 | 9,8 | 3,8 | 6,3 |
| **Kultura** | 12,5 | 10,2 | 15,1 | 3,7 |
| **Jendartea** | 29,6 | 13,3 | 13,1 | 13,7 |
| **Kirola** | 21,2 | 24,3 | 34,3 | 16,0 |
| **Eguraldia** | 2,7 | 6,6 | 5,5 | 6,7 |
| **Gertukoak** | 0,0 | 0,0 | 6,6 | 0,0 |
| **Trafikoa** | 0,0 | 0,0 | 1,2 | 5,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| *Oinarri (kasu kopurua)* | *924* | *903* | *2.207* | *2.874* |



# 2 ALBISTEEN ANTOLAKETA

Atal honetan EITBn emititzen diren albisteak zeintzuk diren erakusten dizkigute datuek. Datuek albisteen bloke tematikoari egiten diete erreferentzia.

## 2.1 ALBISTEEN AGERPENAK ATALKA

EITBn eskaintzen diren albisteen hamarretik ia hiruk (%29,7) Kirolari buruzkoak dira.

Politikako datuek bigarren maila okupatzen dute albiste kopuruen rankingean, ia hamar puntuko aldearekin.

| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|---|---|---|
| **Politika** | 217 | 20,4 |
| **Ekonomia** | 100 | 9,4 |
| **Nazioartea** | 99 | 9,3 |
| **Kultura** | 134 | 12,6 |
| **Jendartea** | 158 | 14,8 |
| **Kirola** | 317 | 29,7 |
| **Trafikoa** | 13 | 1,2 |
| **Gertukoak** | 13 | 1,2 |
| **Eguraldia** | 15 | 1,4 |
| **Guztira** | **1.066** | **100,0** |



## 2.1.1 Albisteen agerpenak atalka hedabide bakoitzean

| | EITB | ETB-1 | ETB-2 | Euskadi Irratia | Radio Euskadi |
|---|---|---|---|---|---|
| **Politika** | 20,4 | 19,6 | 18,5 | 24,9 | 17,1 |
| **Ekonomia** | 9,4 | 9,6 | 10,0 | 8,2 | 10,1 |
| **Nazioartea** | 9,3 | 11,5 | 13,3 | 4,3 | 9,7 |
| **Kultura** | 11,1 | 12,0 | 6,2 | 15,8 | 15,5 |
| **Jendartea** | 16,3 | 21,5 | 25,2 | 12,2 | 8,1 |
| **Kirola** | 29,7 | 25,4 | 30,4 | 27,7 | 35,3 |
| **Eguraldia** | 1,4 | 0,5 | 1,9 | 1,5 | 1,6 |
| **Gertukoak** | 1,2 | 0,0 | 0,0 | 4,0 | 0,0 |
| **Trafikoa** | 1,2 | 0,0 | 0,4 | 1,5 | 2,7 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| *Oinarria (Kasu kopurua)* | *1.066* | *209* | *270* | *329* | *258* |

Lau hedabideen arteko joerak berdintsuak badira ere, Kirolaren kasuan Radio Euskadi da albiste gehien eskaintzen dituena (%35,3).

Politikaren kasuan Euskadi Irratia da notizi gehien ematen dituena, albisteen laurdena gai honi dedikatuz.

Bestetik, ETB2n Kulturari buruzko albiste urriak ikus daitezke %6,3arekin. Telebista eta irratien arteko desberdintasuna egotea normala izan arren, Irratiek Kulturari eskainitako tarte berezia dute euren albistegietan.

Euskadi Irratia, aldiz, Nazioarteari albiste gutxien eskaintzen dien hedabidea da %4,3arekin.

Jendarteko gaietan aldakortasun handia dago hedabideen artean, ETB1 izanik kopuru gehien ematen dituena %21,5arekin. Radio Euskadik albisteen %8,1a soilik eskaintzen dio gai honi.



## 2.2 ALBISTEEN DENBORAK TITULARRETAN HEDABIDE BAKOITZEAN

Irratien kasuan, oso altua da (%34,9 eta %40,0 hurrenez hurren Euskadi Irratia eta Radio Euskadin) Kirolak titularretan duen pisua.

Irratiko albistegian Kirolari denbora tarte zabalak eskaintzeak azaltzen digu datu hau, izan ere albistegi tarte berezituaren denbora oso handia da.

| | ETB-1 | ETB-2 | Euskadi Irratia | Radio Euskadi |
|---|---|---|---|---|
| **Politika** | 19,4 | 16,9 | 21,5 | 19,9 |
| **Ekonomia** | 9,0 | 9,1 | 6,7 | 10,4 |
| **Nazioartea** | 14,2 | 12,7 | 4,2 | 7,9 |
| **Kultura** | 12,9 | 4,7 | 15,5 | 10,8 |
| **Jendartea** | 24,4 | 25,9 | 11,6 | 9,8 |
| **Kirola** | 19,2 | 28,5 | 34,9 | 40,0 |
| **Eguraldia** | 0,8 | 2,1 | 1,2 | 0,6 |
| **Gertukoak** | 0,0 | 0,3 | 3,7 | 0,0 |
| **Trafikoa** | 0,0 | 0,0 | 0,7 | 0,7 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| *Oinarriz (kasu kopurua)* | *13.969* | *18.975* | *29.344* | *33.356* |



## 2.3 ALBISTEEN ORDENA TITULARRETAN

| | Lehentasunezko albisteak | Bigarren mailako albisteak | Bloke nagusia | Azken albistea | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| **Politika** | 60,7 | 42,9 | 9,5 | 0,0 | 20,4 |
| **Ekonomia** | 12,1 | 26,4 | 6,1 | 0,0 | 9,4 |
| **Nazioartea** | 2,9 | 19,3 | 8,8 | 3,6 | 9,3 |
| **Kultura** | 5,0 | 2,1 | 13,5 | 21,4 | 11,1 |
| **Jendartea** | 15,7 | 9,3 | 17,5 | 21,4 | 16,3 |
| **Kirola** | 0,0 | 0,0 | 40,0 | 50,0 | 29,7 |
| **Eguraldia** | 2,9 | 0,0 | 1,5 | 0,0 | 1,4 |
| **Gertukoak** | 0,0 | 0,0 | 1,7 | 0,0 | 1,2 |
| **Trafikoa** | 0,7 | 0,0 | 1,5 | 3,6 | 1,2 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| *Oinarria(kasu kopurua)* | *140* | *140* | *758* | *28* | *1.066* |

Politikako albisteen lehentasunezko posizioa argia da EITBn. Lehen ikusi dugun moduan Titularretara Kiroleko gaiak baldin badira gehien eramaten direnak, ordenari dagokionez lehenengo bost albistetatik %60,7a Politikari buruzkoak dira.

Albistegietako 6. Eta 10. Albisteen artean kokatutakoak ere kasuen %40tik gora Politikari buruzkoak dira.

Bloke zentralean nagusiki, %40,0 batekin, Kirolari buruz hitz egiten da.

Azken albisteari dagokionez 2tik 1 Kirolaren inguruko berria izaten da.



# C. ALBISTEEN LOKALIZAZIOA

Atal honetan albistearen joko eremua zein den aztertua izan da, EITBn emititzen diren albisteek nongo duten jatorria eta norainokoa geopolitikoki daukaten eragina.

Bi azterlan desberdin antzeman daitezke atal honen baitan; albistearen eremuaren ingurukoa bata, albisteak eragin duen esparruari buruzkoa bestea.

Kasu honetan ere, Titular eta Albisteen azterketa berezitua egin dugu.

Era berean, bi aldagai hauek gaiaren arabera nola banatzen diren erakusten dizkigute jarraian aurkezten diren datuak.

# 1 ALBISTEAREN EREMUA

Atal honek emititzen diren notiziak nongoak diren erakusten digu.

## 1.1 TITULARRAK

Titularretako erreferentzia nagusiena, %50,6a, EAEkoa da; beraz, titularretara eramaten diren bi notizietatik ia bat EAEn gertatutakoa da.

Bestetik, ikus daiteke Espainiar Estatuko albisteek titularretan pisu handia dutela (%16,8).

### 1.1.1 Titularretako eremuak

#### *1.1.1.1 Agerpenak*

| | Maiztasunak | Ehunekoak (%) |
|---|---|---|
| **EAE** | 173 | 50,6 |
| **Nafarroa Garaia** | 21 | 6,2 |
| **Ipar Euskal Herria** | 4 | 1,2 |
| **Hego Euskal Herria** | 26 | 7,6 |
| **Euskal Herria** | 10 | 2,9 |
| **Estatu Espainiarra** | 57 | 16,8 |
| **Estatu Frantziarra** | 4 | 1,2 |
| **Europa** | 16 | 4,7 |
| **EEBB** | 4 | 1,2 |
| **Mundua** | 26 | 7,6 |
| **Guztira** | **341** | **100,0** |



### 1.1.1.2 Titularretako albisteen eremua hedabide bakoitzean

| | ETB1 | ETB2 | Euskadi Irratia | Radio Euskadi |
|---|---|---|---|---|
| **EAE** | 54,4 | 49,2 | 46,8 | 53,6 |
| **Nafarroa Garaia** | 3,5 | 1,6 | 7,2 | 8,9 |
| **Ipar Euskal Herria** | 0,0 | 0,0 | 2,7 | 0,9 |
| **Hego Euskal Herria** | 7,0 | 3,3 | 10,8 | 7,1 |
| **Euskal Herria** | 3,5 | 4,9 | 1,8 | 2,7 |
| **Espainiar Estatua** | 12,3 | 21,3 | 19,8 | 13,4 |
| **Frantziar Estatua** | 1,8 | 0,0 | 0,9 | 1,8 |
| **Europa** | 7,0 | 8,2 | 0,9 | 5,4 |
| **EEBB** | 3,5 | 0,0 | 1,8 | 0,0 |
| **Mundua** | 7,0 | 11,5 | 7,2 | 6,3 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| *Oinarria (kasu kopurua)* | *57* | *61* | *111* | *112* |

Joerak berdintsuak dira hedabide guztietan.

ETB-2n Nafarroa Garaia, Ipar Euskal Herria, Hego Euskal Herria eta Euskal Herria gertaera eremutzat dituzten berrien titular kopurua eskasa dela antzeman daiteke, guztira %9,8, beste hedabideekin alderatuta: ETB-1n %14,0a, Radio Euskadin %19,6a eta Euskadi Irratian %22,5a.

Espainiar Estatuko albisteei dagokionez, ordea, ETB2k %21,3an erakusten ditu titularretan.

**Titularretako albisteen eremua hedabide bakoitzean**



## 1.1.2 Titularretako denbora

### *1.1.2.1 Hedabide bakoitzeko denborak*

| | ETB1 | ETB2 | Euskadi Irratia | Radio Euskadi |
|---|---|---|---|---|
| **EAE** | 57,4 | 53,1 | 47,0 | 62,5 |
| **Mundua** | 7,3 | 9,3 | 8,3 | 5,4 |
| **Nafarroa Garaia** | 3,5 | 0,7 | 9,0 | 4,3 |
| **Ipar Euskal Herria** | 0,0 | 0,0 | 2,5 | 0,1 |
| **Hego Euskal Herria** | 6,8 | 2,7 | 10,8 | 4,9 |
| **Euskal Herria** | 2,2 | 8,9 | 3,5 | 3,0 |
| **Espainiar Estatua** | 11,7 | 17,0 | 15,1 | 9,9 |
| **Frantziar Estatua** | 1,6 | 0,0 | 1,1 | 1,0 |
| **Europa** | 6,8 | 8,2 | 1,4 | 8,9 |
| **EEBB** | 2,8 | 0,0 | 1,3 | 0,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| *Oinarria (kasu kopurua)* | *924* | *903* | *2.207* | *2.874* |

Hedabideka aztertzen direnean, titularretan eremu bakoitzari eskaintzen zaizkion denborak, diferentziak ez dira oso nabarmenak.

Hala ere, aipatzekoa da ETB2 dela Espainiar estatuari denbora gehien eskaintzen diona (%17,0). Ipar Euskal Herria, Hego Euskal Herria eta Euskal Herriko datuak batuz gero, aldiz, Euskadi Irratia da, nabarmenki, denbora gehien eskaintzen diona marko horri.



## 1.2 ALBISTEAK

### 1.2.1 Albisteen eremuaren agerpenak

Albisteen ia erdia Euskal Autonomia Erkidegoan gertatutakoak dira. Nafarroa Garaikoak eta Ipar Euskal Herrikoak batuta, ordea, %10era ez dira heltzen.

Estatu Espainiarrean kokatutako berriak albiste guztien %17,3a suposatzen dute.

| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|---|---|---|
| **EAE** | 494 | 46,5 |
| **Nafarroa Garaia** | 68 | 6,4 |
| **Ipar Euskal Herria** | 21 | 2,0 |
| **Hego Euskal Herria** | 77 | 7,2 |
| **Euskal Herria** | 30 | 2,8 |
| **Estatu Espainiarra** | 184 | 17,3 |
| **Estatu Frantziarra** | 19 | 1,8 |
| **Europa** | 59 | 5,6 |
| **EEBB** | 13 | 1,2 |
| **Mundua** | 98 | 9,2 |
| **Guztira** | **1.063** | **100,0** |

**Albistearen eremuaren agerpena**



### *1.2.1.1 Albistearen eremuaren agerpenak hedabide bakoitzean*

ETB-1 eta ETB-2n EAEko albisteei eskainitako espazioa, Irratikoekin alderatuta, txikiagoa dela esan dezakegu.

Desberdintasun hori Espainiako albisteei eskaintzen zaion tartea nabarmen handiagoa delako gertatzen da: ETB-1eko %21,7ko datua eta Radio Euskadiko %12,8a alderatuz gero ikus daiteke.

| | EITB | ETB1 | ETB2 | Euskadi Irratia | Radio Euskadi |
|---|---|---|---|---|---|
| **EAE** | 46,5 | 43,5 | 40,9 | 49,2 | 51,2 |
| **Nafarroa Garaia** | 6,4 | 2,9 | 5,9 | 7,9 | 7,8 |
| **Ipar Euskal Herria** | 2,0 | 0,5 | 1,5 | 3,3 | 1,9 |
| **Hego Euskal Herria** | 7,2 | 5,3 | 5,2 | 7,9 | 10,1 |
| **Euskal Herria** | 2,8 | 3,4 | 2,2 | 4,0 | 1,6 |
| **Estatu Espainiarra** | 17,3 | 21,7 | 21,2 | 14,9 | 12,8 |
| **Estatu Frantziarra** | 1,8 | 1,9 | 1,5 | 1,8 | 1,9 |
| **Europa** | 5,6 | 8,2 | 6,7 | 4,3 | 3,9 |
| **EEBB** | 1,2 | 2,9 | 1,1 | 1,2 | 0,0 |
| **Mundua** | 9,2 | 9,7 | 13,8 | 5,5 | 8,9 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| *Oinarria (kasu kopurua)* | *1.066* | *209* | *270* | *329* | *258* |



## 1.2.2 Albistearen eremuaren denbora hedabide bakoitzean

| | ETB1 | ETB2 | Euskadi Irratia | Radio Euskadi |
|---|---|---|---|---|
| **EAE** | 49,5 | 49,6 | 49,9 | 64,4 |
| **Nafarroa Garaia** | 11,1 | 11,8 | 5,4 | 6,7 |
| **Ipar Euskal Herria** | 0,2 | 1,2 | 4,2 | 1,3 |
| **Hego Euskal herria** | 4,4 | 3,3 | 8,8 | 5,1 |
| **Euskal Herria** | 3,1 | 2,9 | 3,1 | 2,7 |
| **Espainiar Estatua** | 18,4 | 17,9 | 14,7 | 7,1 |
| **Frantziar Estatua** | 2,1 | 1,0 | 1,3 | 1,3 |
| **Europa** | 6,2 | 5,7 | 3,7 | 4,0 |
| **EEBB** | 2,7 | 0,8 | 1,3 | 0,0 |
| **Mundua** | 2,4 | 5,9 | 7,6 | 7,3 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| *Oinarria (Kasu kopurua)* | *13.945* | *18.937* | *29.344* | *33.356* |

EAEri egiten zaizkion erreferentziak hazi egiten dira telebistatik irratira eta euskaratik gaztelerara pasatzen garen heinean. Kontrako joera ikusten da Espainiar estatuari egiten zaizkion erreferentzietan.

Euskal Herriari zuzeneko edo zeharkako erreferentzia gehien egiten diona, Euskadi Irratia da modu nabarmenean (Ipar Euskal Herria %5,4, Hego Euskal Herria %8,8 eta Euskal Herria %3,1).



## 1.2.3 Albisteen eremuaren araberako ordena

| | Lehentasunezko albisteak | Bigarren mailako albisteak | Bloke nagusia | Azken albistea | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| **EAE** | 51,4 | 37,4 | 47,7 | 33,3 | 46,5 |
| **Nafarroa Garaia** | 5,0 | 6,5 | 6,7 | 3,7 | 6,4 |
| **Ipar Euskal Herria** | 0,7 | 0,7 | 2,5 | 0,0 | 2,0 |
| **Hego Euskal Herria** | 5,7 | 7,2 | 7,4 | 11,1 | 7,2 |
| **Euskal Herria** | 5,7 | 0,0 | 2,8 | 3,7 | 2,8 |
| **Estatu Espainiarra** | 21,4 | 20,1 | 15,9 | 22,2 | 17,3 |
| **Estatu Frantziarra** | 1,4 | 2,9 | 1,6 | 3,7 | 1,8 |
| **Europa** | 5,0 | 9,4 | 5,0 | 3,7 | 5,6 |
| **EEBB** | 0,7 | 0,0 | 1,5 | 3,7 | 1,2 |
| **Mundua** | 2,9 | 15,8 | 9,0 | 14,8 | 9,2 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| *Oinarria (kasu kopurua)* | *57* | *61* | *111* | *146* | *258* |

Albisteen ordenari erreparatzen badiogu, bi elementu nagusi ikus daitezke.

Batetik, guztietan EAE eta Espainia direla erreferentzia nagusiak

Bestetik, bi marko hauek lehen blokean dutela pisu erlatibo gehiena. Beste blokeetan nagusitasun hori mantentzen bada ere, beste eremuei leku apur bat gehiago uzten zaio, itxiera albisteetan izan ezik; kasu honetan, Espainiak baitu beste bloke guztietan baino presentzia gehiago.



# 2 ALBISTEARENERAGIN ESPARRUA

## 2.1 TITULARRAK

### 2.1.1 Titularretako albisteen eragin esparrua

#### *2.1.1.1 Agerpen kopuruak*

Kasu honetan ere, agerpen kopururik altuena EAE eta Espainiar estatuaren artean banatzen da (guztira %69,6a). Hala ere, aipatzekoa da, banaketa hau besteetan baino parekatuagoa dela, hau da, Espainiar estatua eragin esparru bezala agertzen den albiste kopurua, EAEkoarekin alderatuz, besteetan baino parekatuagoa.

| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|---|---|---|
| **EAE** | 126 | 37,2 |
| **Nafarroa Garaia** | 14 | 4,1 |
| **Ipar Euskal herria** | 4 | 1,2 |
| **Hego Euskal herria** | 26 | 7,7 |
| **Euskal Herria** | 9 | 2,7 |
| **Espainiar Estatua** | 110 | 32,4 |
| **Frantziar Estatua** | 4 | 1,2 |
| **Europa** | 16 | 4,7 |
| **EEBB** | 4 | 1,2 |
| **Mundua** | 26 | 7,7 |
| **Guztira** | **339** | **100,0** |

**Titularretako albisteen eragin esparruarn agerpena**




.

### 2.1.1.2 *Titularretako albisteen eragin esparruaren agerpena hedabide bakoitzean*

| | ETB1 | ETB2 | Euskadi Irratia | Radio Euskadi | EITB |
|---|---|---|---|---|---|
| **EAE** | 37,4 | 23,4 | 45,9 | 25,3 | 33,6 |
| **Nafarroa Garaia** | 3,4 | 3,0 | 7,9 | 4,3 | 4,9 |
| **Ipar Euskal Herria** | | 0,4 | 3,0 | 1,2 | 1,3 |
| **Hego Euskal Herria** | 8,7 | 6,3 | 9,4 | 9,3 | 8,5 |
| **Euskal Herria** | 2,9 | 1,9 | 5,8 | 2,3 | 3,4 |
| **Estatu Espainiarra** | 23,8 | 39,8 | 18,5 | 39,7 | 30,1 |
| **Estatu Frantziarra** | 1,9 | 1,5 | 1,2 | 1,2 | 1,4 |
| **Europa** | 8,7 | 7,8 | 3,0 | 5,1 | 5,8 |
| **EEBB** | 3,4 | 0,7 | 0,9 | 0,0 | 1,1 |
| **Mundua** | 9,7 | 15,2 | 4,3 | 11,7 | 9,9 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| *Oinarria (kasu kopurua)* | *209* | *270* | *329* | *258* | *1.066* |

ETB2 eta Radio Euskadiren kasuan, Titularretara eramaten diren albiste gehienak, %39,3 eta %45,0 hurrenez hurren, Estatu Espainiarrean dute eragina.

ETB1 eta Euskadi Irratian, ordea, erreferentzia nagusia EAE izaten jarraitzen du: Euskal Autonomi Erkidegoan hasi eta bukatzen dira albisteak.

Nafarroako datua esanguratsua da oso; soilik Euskadi Irratiak gainditzen du %5a. Ipar Euskal Herriaren kasuan ere, telebistako titularretan presentziarik ez duela ikus daiteke.

ETB2 da modu nabarian Munduko erreferentziak gehien eskaintzen dituen hedabidea, %15,2ko portzentajearekin

**Titularretako albisteen eragin esparrua hedabide bakoitzean**



## 2.1.2 Titularretako denbora albisteen eragin esparruaren arabera

### *2.1.2.1 Titularretako albisteen eragin esparruaren denbora hedabide bakoitzean*

| | ETB1 | ETB2 | Euskadi Irratia | Radio Euskadi |
|---|---|---|---|---|
| **EAE** | 49,3 | 41,0 | 46,6 | 32,7 |
| **Nafaroa Garaia** | 5,9 | 11,8 | 5,1 | 1,0 |
| **Ipar Euskal erria** | 3,5 | 0,0 | 3,4 | 0,1 |
| **Hego Euskal Herria** | 0,0 | 0,0 | 8,7 | 5,0 |
| **Euskal Herria** | 7,5 | 8,0 | 6,4 | 0,8 |
| **Espainiar Estatua** | 18,1 | 32,9 | 22,0 | 45,4 |
| **Frantziar Estatua** | 3,4 | 1,5 | 0,1 | 1,1 |
| **Europa** | 1,7 | 0,0 | 2,1 | 4,1 |
| **EEBB** | 7,8 | 4,8 | 1,3 | 0,0 |
| **Mundua** | 2,9 | 0,0 | 4,1 | 9,7 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| *Oinarria (kasu kopurua)* | *924* | *903* | *2.207* | *2.874* |

ETB2 eta Radio Euskadin Espainia eragin esparru gisa hartzen dituzten albisteen denborak konparatiboki altuagoak direla antzeman daiteke, %32,9 eta %45,4ko datuarekin hurrenez hurren




.

## 2.2 ALBISTEAK

### 2.2.1 Albistearen eragin esparrua

#### *2.2.1.1 Albistearen eragin esparruaren agerpena*

Albistegietan ageri diren berriak non eragiten duten aztertzean, parez pare topatzen ditugu EAE eta Estatu Espainiarra.

Desberdintasun handia antzeman daiteke albisteak non gertatu diren eta non eragiten duten alderatzean, EAE nagusi izanik ere, Espainiar erreferentzia asko areagotzen baita azken honetan, %30,1era iritsi arte.

| | Maiztasuna | Ehunekoak (%) |
|---|---|---|
| **EAE** | 356 | 33,6 |
| **Nafarroa Garaia** | 52 | 4,9 |
| **Ipar Euskal Herria** | 14 | 1,3 |
| **Hego Euskal Herria** | 90 | 8,5 |
| **Euskal Herria** | 36 | 3,4 |
| **Estatu Espainiarra** | 319 | 30,1 |
| **Estatu Frantziarra** | 15 | 1,4 |
| **Europa** | 62 | 5,8 |
| **EEBB** | 12 | 1,1 |
| **Mundua** | 105 | 9,9 |
| **Guztira** | **1.061** | **100,0** |



### 2.2.1.2 *Albistearen eragin esparruaren agerpena hedabide bakoitzean*

| | ETB1 | ETB2 | Euskadi Irratia | Radio Euskadi |
|---|---|---|---|---|
| **EAE** | 46,4 | 29,5 | 46,8 | 27,0 |
| **Nafarroa Garaia** | 3,6 | 0,0 | 7,2 | 3,6 |
| **Ipar Euskal Herria** | 0,0 | 0,0 | 2,7 | 0,9 |
| **Hego EuskalHerria** | 7,1 | 9,8 | 8,1 | 6,3 |
| **Euskal herria** | 3,6 | 1,6 | 3,6 | 1,8 |
| **Espainiar Estatua** | 19,6 | 39,3 | 22,5 | 45,0 |
| **Frantziar Estatua** | 1,8 | 0,0 | 0,9 | 1,8 |
| **Europa** | 8,9 | 4,9 | 1,8 | 5,4 |
| **EEBB** | 3,6 | 0,0 | 1,8 | 0,0 |
| **Mundua** | 5,4 | 14,8 | 4,5 | 8,1 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| *Oinarriz (kasu kopurua)* | *209* | *270* | *329* | *2.582* |

ETB2 eta Radio Euskadiren kasuetan, Estatu Espainiarreko erreferentzia %40aren inguruan kokatzen da bi kasuetan, beste bi hedabideen bikoitza, hain zuzen ere.

Hedabide guztietan Nafarroa, Ipar Euskal Herria, Hego Euskal Herria eta Euskal Herri osorako eragina duten berriak urriak badira ere, Euskadi Irratian aurki ditzakegu daturik altuenak, zehazki %21,6a.



### *2.2.1.3 Albistearen eragin esparrua atalka*

Albisteen eragin esparrua gai edo atalen arabera aztertzean, Espainia erreferentziatzat duten atalak honakoak dira: Politika (%30,2), Ekonomia (%36,0) eta, nagusiki, Kirola (%51,3). Beste gaietan nahiko apalak dira Espainia eragin eremutzat dituzten berriak, bestelako eremuen alde.

EAE eragin esparrutzat hartzen badugu, Kultura eta Jendarte ataletan lortzen da kopururik altuena.

| | Politika | Ekonomia | Nazioartea | Kultura | Jendartea | Kirola |
|---|---|---|---|---|---|---|
